La coyuntura económica en la que se desarrolló la redacción y negociación de la Ley 12/2008, era muy diferente de la actual, en la que las condiciones económicas obligan a incrementar la austeridad en las políticas públicas, la eficacia de las actuaciones de las administraciones y la eficiencia del presupuesto público. Ello nos obliga a efectuar una mejor labor de priorización del gasto público y a incrementar los sistemas de evaluación del impacto de las actuaciones públicas.

El papel que la Ley de Servicios Sociales otorga al Gobierno Vasco en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, se centra en el desarrollo normativo, la función de planificación y la gestión de los servicios siguientes:

- Servicio de teleasistencia; servicio de información y atención a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo; servicio para la gestión integrada de la atención a mujeres víctimas de violencia de género (gestionados por la Dirección de Servicios Sociales).
- Servicio integral de mediación familiar; servicio de información social a la infancia y la adolescencia en situación de desprotección (gestionados por la Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario).
- Punto de encuentro familiar, en su modalidad de servicio de atención a casos derivados por resolución judicial (gestionado por la Dirección de Justicia).

2016ko ekitaldian garatu nahi diren jardunen helburua da lurralde osoan sistema egituratu eta homogéneo bat ezartzea, tresnak martxan jarrita edo Euskal herritar guztiei gizarte-zerbitzuetarako sarreran segurtasun juridikoa eta berdintasuna ahalbidetuko dien araubide bat eginez, eta horren kudeaketan inplikaturiko eragileekin sareko lan bat garatuta: administrazio eskudunak, gizarte ekimeneko erakundeak eta sistemaren erabiltzaileak.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak 2016an lortu beharreko helburuen artean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroa garatzea dago, plangintza estrategikoari jarraiki, eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan zehaztutako helburuen jarraipenaren bitartez (2018ra arte egongo da indarrean).

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sendotzeko, beste gizarte-babes sistema batzuekin harremana egituratu behar da, eta horretarako bada Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, osasun sistemarekin koordinatzeko organoa alegia. Pertsonak euren ohiko bizilekuan mantentzeari lehentasuna eman diezaioketen arreta-eredu bat sendotzearen aldeko apustua egiten duten erkidegoko jardun soziosanitarioen gidatzen jarraituko du kontseilua. Gizarte Zerbitzuen Sistemari telelaguntza-zerbitzua sustatuko dugu hurbileko zerbitzu gisa eta osasun-arloan garatutako etxez etxeko arreta-sistemarekin koordinatzeko gaitasun handia duen zerbitzu gisa. Beren autonomia mugatua duten pertsonen etxebizitzetan jarduten duten zerbitzuekin koordinatuta jarduteko honako zerbitzu hauetariko bakoitzaren eraginkortasuna eta efizientzia handitu behar da: telelaguntza, etxerako laguntza-zerbitzua –gizarte-zerbitzuen lehen mailako arretaren esparruan biak– eta etxeko osasun laguntza..

Enplegu-politika aktiboen arloko eskumena eta Lanbide laneratze aktiboaren aldeko tresna gisa edukitzeak ekarri du diru-sarrerak bermatzeko errenta-politikak enplegu-sistematik kudeatzea gizarte-zerbitzuen sistematik kudeatu orde. Gizarte-larrialdiko laguntzak deituriko prestazio ekonomikoak gizarte-zerbitzuetatik kudeatzen jarraituko da. Eskualdatze horrek aukera paregabea eman dio Gizarte Zerbitzuen Sistemari, hurbileko gizarte-zerbitzuek beren ahaleginak pertsona guztien autonomia funtzionala eta harreman- edo komunitate-integrazioa babestu eta sustatzeko eginkizunera bidera ditzan. Gainera, hurbileko gizarte-zerbitzuak indartuko dira Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren laguntza teknikoaren bitartez, sistemari parte hartzen duten eragile guztien lana erraztuko duten tresnak garatuta. Horrela, Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema garatuko da, urte anitzeko jarduna eskatuko duen lan baten barruan, bai horren konplexutasun teknikoagatik, bai duen kostu ekonomikoagatik; eta sistemarako sarreran herritarren berdintasuna bermatuko duten plataforma informatikoak eta diagnostikoa egiteko tresna tekniko komunak. sendotuko dira.

Las actuaciones que se propone desarrollar en el ejercicio 2016 persiguen consolidar un sistema estructurado y homogéneo en todo el territorio, a través de la puesta en marcha de instrumentos, o de la elaboración de normativa que posibilite seguridad jurídica e igualdad en el acceso a los servicios sociales a toda la ciudadanía vasca, desarrollando un trabajo en red con los agentes implicados en su gestión: Administraciones competentes, entidades de iniciativa social y personas usuarias del sistema.

El desarrollo de la cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales será uno de los objetivos que la Dirección de Servicios Sociales deberá alcanzar durante el año 2016, de acuerdo con la planificación estratégica y a través del seguimiento de los objetivos marcados en el Plan Estratégico de Servicios Sociales, cuya vigencia se extenderá hasta 2018.

La consolidación del Sistema Vasco de Servicios Sociales, supone la estructuración de la relación con los otros sistemas de protección social; para ello, se cuenta con el Consejo Vasco de Atención Socio-sanitaria, órgano de coordinación con el sistema de salud, que seguirá abordando el pilotaje de las actuaciones de carácter socio-sanitario a nivel autonómico, que apuesten por la consolidación de un modelo de atención capaz de otorgar prioridad al mantenimiento de las personas en su entorno de vida habitual. Desde el Sistema de servicios sociales, promoveremos el servicio de teleasistencia como un servicio de proximidad y con un importante potencial de coordinación con el sistema de atención en el domicilio desarrollado desde el ámbito sanitario. La actuación coordinada de los diferentes servicios que inciden en los domicilios de las personas con limitación de su autonomía, supone incrementar la eficacia y la eficiencia de cada uno de estos servicios: teleasistencia, servicio de ayuda a domicilio –ambos enmarcados en la atención primaria de servicios sociales- y atención sanitaria en domicilio.

Contar con la competencia en materia de políticas activas de empleo y con Lanbide como instrumento a favor de la inclusión activa, ha supuesto que las políticas de renta de garantía de ingresos se gestionen desde el sistema de empleo y no desde el sistema de servicios sociales. Se seguirán gestionando desde los servicios sociales las prestaciones económicas denominadas ayudas de emergencia social. Esa transferencia ha dado una oportunidad única al sistema de servicios sociales para que los servicios sociales de proximidad concentren sus esfuerzos en su función específica de protección y promoción de la autonomía funcional e integración relacional o comunitaria de todas las personas. Además, se reforzarán los servicios sociales de proximidad, a través del apoyo técnico desde la Dirección de Servicios Sociales, desarrollando herramientas que faciliten la labor de todos los agentes implicados en el sistema. Así, se desarrollará el Sistema de Información de Servicios Sociales, en una labor que exigirá una actuación de carácter plurianual, tanto por su complejidad técnica como por su coste económico, y se consolidarán las plataformas informáticas y los instrumentos de diagnóstico técnico común, que garanticen la igualdad de la ciudadanía en su acceso al sistema.

Gizarte Ekimena indartzea izango da Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren funtsezko beste jardun-ardatzetako bat, betiere Legean bildutako partaidetza-organoen bitartez. 2015. urteko ekitaldian Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua eta Adinekoen Batzorde Sektoriala dinamizatzen jarraituko dugu. Azken hori aurrekoaren mendekoa da eta Adinekoen Kontseilu Sektoriala izena jarriko diote.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeaz gain, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarentzako erreferentziatzeko arau-esparrua osatzen du Mendetasun Egoeran daudenen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeari buruzko Legeak, eta Gizarte-larrialdiko laguntzei dagokienez, 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legea.

Laguntza-ereduetan ezagutza eta berrikuntza kudeatzeko jarduerak oso beharrezko ageri dira gizarte-zerbitzuen esparruan, 12/2008 Legearen garapenaren testuinguruan, laguntza-era eraginkorragoak, efikazagoak eta pertsonen beharizan eta eskariei hobeto erantzuten dietenak lortzeko bidean aurrera egiteko. Horretarako, ezagutzaren ikerketa eta kudeaketarako proiektu bat sustatuko da, mendetasun-, desgaitasun- eta zahartze-egoeretan laguntzeko, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian eskarmentua duten beste eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan finkatutako helburuen artean dago lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak indartzea ere; hortaz, udaletako indartze-teknikariei babesa emateko kontu-saila gehitu da 2016ko aurrekontuan.

Hiru prozesu gakok taxutzen dituzte 2016ko aurrekontu-ekitaldian garatuko diren jarduerak hartzen dituzten esparruak:

1. Gizarte zerbitzuen araudia lantzea eta garatzea.
2. Zuzeneko ekintzakotzat jotzen diren zerbitzuen ematea.
3. Erakunde-harremanak erakunde eta entitateekin.

1. Gizarte zerbitzuen araudia lantzea eta garatzea.

1.1. Araudia lantzea:

- Ezinduentzako eguneko zentzoei buruzko Dekretua.
- Ezinduentzako lanean trebatzeko zentzoei buruzko Dekretua.
- Gizarte-baztertuentzako egoitza-zentzoei buruzko Dekretua.

Fortalecer la iniciativa social será otro de los ejes de actuación fundamental de la Dirección de Servicios Sociales, a través de los órganos de participación contemplados en la Ley. Durante el ejercicio 2016 se continuará con la dinamización del Consejo Vasco de Servicios Sociales y de la Comisión Sectorial de Mayores, dependiente del anterior y que pasará a denominarse Consejo Sectorial de Personas Mayores.

El marco normativo de referencia para la Dirección de Servicios Sociales lo constituye, además de la Ley 12/2008 de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, y en lo que concierne a las ayudas de emergencia social, la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, así como la Ley 4/2011, de 24 de noviembre, de modificación de la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

Las actividades de gestión del conocimiento e innovación en los modelos de atención, se revelan muy necesarias en el ámbito de los servicios sociales en el contexto de desarrollo de la Ley 12/2008, con el objetivo de avanzar en fórmulas de atención más eficientes, eficaces y respetuosas con las necesidades y demandas de las personas. Para ello se promoverán proyectos de investigación y gestión del conocimiento, para la atención a la dependencia, la discapacidad y el envejecimiento, en colaboración con otros agentes, públicos y privados, con trayectoria en la actividad investigadora y de transferencia del conocimiento.

Asimismo, el fortalecimiento de los servicios sociales de atención primaria es uno de los objetivos planteados en el Plan Estratégico de Servicios Sociales, por lo que se incluye en el presupuesto 2016 la partida de apoyo a los técnicos de refuerzo municipales.

Los procesos clave que constituyen los ámbitos que agrupan las actuaciones previstas para desarrollar durante el ejercicio presupuestario de 2016, son tres:

1. Elaboración y desarrollo de la normativa de servicios sociales.
2. Prestación de los servicios determinados como de acción directa.
3. Relaciones Institucionales con las organizaciones y entidades.

1. Elaboración y desarrollo de la normativa de servicios sociales.

1.1. Elaboración de normativa:

- Decreto de centros de día para personas con discapacidad.
- Decreto de centros ocupacionales para personas con discapacidad.
- Decreto de centros residenciales para personas en situación de exclusión social.

- Arrisku-eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duen Dekretua.
- Gizarte Zerbitzuen Mapan zehazturiko biztanleremuen arabera, gutxieneko estaldura-mailak eta, beharrezkoa denean, batez besteko gutxieneko intentsitatei buruzko erregelamendua.

1.2. Arauzko izapidea amaitzea:

- Nagusientzako egoitza-zentroei buruzko Dekretua
- Nagusientzako ostatu-zerbitzuei buruzko Dekretua.
- Adinekoen Kontseilu Sektorialari buruzko Dekretua.
- Gizarte-zerbitzuen finantzazioan erabiltzaileek parte-hartzeari buruzko Dekretua (ordainketa partekatua).
- Ezinduentzako egoitza-zentroei buruzko Dekretua.
- Gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua.
- Kontzertazio Dekretua.
- 1.3. Arauaren garapena, honako hauei dagokionez:
 - Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea.
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua.

- Decreto del instrumento de valoración de las situaciones de desprotección en personas adultas.
- Regulación de las coberturas mínimas y, en su caso, de las intensidades mínimas estándar correspondientes en función de los ámbitos poblacionales establecidos en el Mapa de Servicios Sociales.

1.2. Finalización de trámite normativo:

- Decreto de centros residenciales para personas mayores.
- Decreto de servicios de alojamiento para personas mayores.
- Decreto del Consejo Sectorial de Personas Mayores.
- Decreto de participación económica de las personas usuarias en la financiación de los servicios sociales (copago).
- Decreto de centros residenciales para personas con discapacidad.
- Decreto de Ayudas de Emergencia Social.
- Decreto de Concertación.
- 1.3. Desarrollo normativo en relación con:
 - Ley del Tercer Sector Social de Euskadi.
 - Decreto de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Gizarte Zerbitzuen Sistemaren egitura eta administrazio-maila desberdinen arteko eskumen-banaketa kontuan izanik, arau-garapen prozesu hori guztia erakundeen arteko laguntza eta lankidetzara oinarritzat hartuz egingo da, eta gizarte ekimenaren iritzia kontuan hartuko da.

2. Zuzeneko ekintzakotzat jotzen diren zerbitzuen ematea.

Eusko Jaurlaritzaren titulartasuneko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren eta Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuaren garatzea, mantentzea eta sendotzea 2016. urtean garatu beharreko ekintzak dira.

Eremu horretako jardunak dira honako hauek:

- Telelaguntza-Zerbitzuaren koordinazioa eta kudeaketa.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretaren arloan gizarte-langileentzako aholkularitza-ekintzak.

Considerando la estructura del Sistema de los Servicios Sociales y el reparto competencial entre los diferentes niveles administrativos, todo este proceso de desarrollo normativo se realizará en el marco de la cooperación y colaboración interinstitucional y considerando la opinión de la iniciativa social.

2. Prestación de los servicios determinados como de acción directa.

El desarrollo, mantenimiento y consolidación del Servicio Público de Teleasistencia y del Servicio de Atención Telefónica a Mujeres Víctimas de Violencia de Género (SATEVI), constituyen acciones a desarrollar durante 2016.

Las actuaciones correspondientes a este ámbito son las siguientes:

- Coordinación y gestión del Servicio de Teleasistencia.
- Coordinación y gestión del Servicio de Atención Telefónica a Mujeres Víctimas de Violencia de Género (SATEVI).

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoen kudeaketa.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretaren kudeaketa integratua:
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretaren arloan gizarte-langileentzako aholkularitza-ekintzak.
 - Gizarte-langileekin eta Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako sailekin koordinazio-ekintzak.
- Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoaren aplikazioari buruzko etengabeko ebaluazio-sistema bat egitea.
- Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako prestakuntza-ekintzak diseinatu eta koordinatzea.
- Profesionalak ez diren zainzaileentzako prestakuntza-ekintzen koordinazioa, Hobetuz erakundearen lankidetzarekin.
- Koordinazio-programa esperimentalak diseinatu eta koordinatzea lehen mailako, gizarte- eta osasun-arretako sistemen artean.
- Sailak Areto Nagusian adinduentzat duen stand-a kudeatzea.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketa.
- Udalek eskatutako ezinduentzako aparkatzeko txartelen kudeaketa.
- Gestión de las ayudas económicas a mujeres víctimas de violencia de género.
- Gestión integrada para la atención a mujeres víctimas de violencia de género:
 - Acciones de asesoramiento a trabajadoras y trabajadores sociales en materia de atención a mujeres víctimas de violencia de género.
 - Acciones de coordinación con las y los trabajadores sociales y con los departamentos del Gobierno Vasco que participan en la atención a mujeres víctimas de violencia de género.
- Elaboración de un sistema de evaluación continua sobre la aplicación del Plan Estratégico de Servicios Sociales.
- Diseño y coordinación de acciones de formación para los profesionales de los servicios sociales.
- Coordinación de las acciones de formación para cuidadoras y cuidadores no profesionales en colaboración con Hobetuz.
- Diseño y coordinación de programas experimentales de coordinación entre los sistemas de atención primaria, social y sanitaria.
- Gestión del stand del Departamento en el Salón Nagusi, para personas mayores.
- Gestión de las Ayudas de Emergencia Social.
- Gestión de las tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad, solicitadas por los ayuntamientos.

12/2008 Legearen aplikaziotik eratortzen den Gizarte Zerbitzuen Sistemaren antolamendu-prozesua kontuan izanik, eta efizientzia-irizpideei jarraiki, zuzeneko ekintzako prozesu guztiak EAEko Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumena duten administrazio-maila desberdinekin lankidetzat estuan egin beharko dira.

3. Erakunde-harremanak Gizarte Zerbitzuen Sistema osatzen duten erakunde eta entitateekin.

Ekitaldian jarraituko dugu Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema arian-arian abian jartzen.

Honako hauek izango dira jardun-eremu horretako zeregin nagusiak: hirugarren sektorerako diru-laguntzen aginduaren kudeaketa, eta sailak finantzaturiko jardunen inpaktua balioesteko aukera ematen duten ebaluazio-tresnak egitea. Era berean, agindu horren administrazio-izapidea hobetzen saiatuko da, administrazio elektronikoen aldeak barne, e-administrazio zuzentarauen ildotik, eta administrazioaren modernizazioaz arduratutako Jaurlaritzako zerbitzu nagusiekin koordinatuta.

Considerando el proceso de ordenación del Sistema de Servicios Sociales que se deriva de la aplicación de la Ley 12/2008, y atendiendo a criterios de eficiencia, todos los procesos derivados de la acción directa deberán ser realizados en estrecha colaboración con los diferentes niveles administrativos de la CAPV, competentes en materia de Servicios Sociales.

3. Relaciones Institucionales con las organizaciones y entidades que forman parte del Sistema de los Servicios Sociales.

Durante este ejercicio se continuará con la puesta en marcha paulatina del Sistema de Información de los Servicios Sociales.

La gestión de la orden de subvenciones al tercer sector y la elaboración de instrumentos de evaluación que permitan realizar una valoración del impacto de las actuaciones financiadas por el departamento, será una de las principales tareas en este ámbito de actuación. Asimismo se procurará avanzar en la mejora de la tramitación administrativa de esta orden, incluyendo los aspectos referidos a la administración electrónica, en línea con las directivas de e-administración y en coordinación con los servicios generales del Gobierno encargados de la modernización administrativa.

Prozesu horretan aurreikusitako jardunak honako hauek dira:

- Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema pixkanaka martxan jartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen deialdia.
- Zuzendaritzak diruz lagundutako hirugarren sektoreko Erakundeek sustatutako esku-hartze sozialeko proiektuen gaineko ebaluazio-auditoriak egitea.
- Toki-erakundeei zuzendutako diru-laguntzei buruzko aginduaren kudeaketa.
- Hirugarren sektoreko erakundeek gizarte-interesekoa izatearen aitortzea lortzeko balorazio eta proposamena.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren koordinazioa.
- Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organoaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Adinduen batzorde sektorialaren kudeaketa eta dinamizazioa (Adinekoen Kontseilu Sektorial izena izatera igaroko da).
- Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorren zaintza eta eguneratzea.
- "Gizarteratuz", gizarte zerbitzuen aldizkako argitalpenen koordinazioa.
- Sektoreari buruzko jakintzako argitalpenen koordinazioa.

Jardun guztiak EAEko erakunde-sarearekin eta gizarte ekimeneko erakundeekin koordinatuta egingo dira, horren inguruan ahalik eta adostasunik handiena lortzen ahaleginduz.

Las actuaciones previstas enmarcadas en este proceso son las siguientes:

- Puesta en marcha paulatina del Sistema de Información de los Servicios Sociales.
- Convocatoria de subvenciones para el fomento de actividades del tercer sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco.
- Realización de auditorías de evaluación a proyectos de intervención social promovidos por las Entidades del tercer sector subvencionados por la Dirección.
- Gestión de la orden subvencional dirigida a entidades locales.
- Valoración y propuesta de declaración de interés social para entidades del tercer sector.
- Coordinación del Observatorio Vasco de Servicios Sociales.
- Gestión y dinamización del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales.
- Gestión y dinamización del Consejo Vasco de Servicios Sociales.
- Gestión y dinamización de la Comisión Sectorial de Personas Mayores (pasará a denominarse Consejo Sectorial de Personas Mayores).
- Mantenimiento y actualización del Registro General de Servicios Sociales.
- Coordinación de las Publicaciones periódicas de servicios sociales, "Gizarteratuz".
- Coordinación de las publicaciones de conocimiento sectorial.

Todas estas actuaciones se llevarán a cabo, en coordinación con el entramado Institucional de la CAPV y con las organizaciones de la iniciativa social, procurando concitar el mayor consenso posible a su alrededor.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA HOMOGENEOA ZIURTATZEA EAE OSOAN, HERRITAR GUZTIEI BERDINTASUNA BERMATUZ SISTEMAKO ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK LORTZEKO</p> <p>1. Gizarte zerbitzuen araudia lantzea, izapideak amaitzea eta garatzea.</p>	<p>14</p>	<p>1. ASEGURAR UN SISTEMA HOMOGÉNEO DE SERVICIOS SOCIALES EN TODA LA CAPV, QUE GARANTICE LA IGUALDAD A TODA LA CIUDADANÍA, EN EL ACCESO A LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES DEL SISTEMA</p> <p>1. Elaboración, finalización de trámite y desarrollo de la normativa de servicios sociales.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Plan estrategikoak eta ebaluazio-sistemak ezartzea.	1	2. Implementación de planes estratégicos y sistemas de evaluación.
2. KALITATEZKO GIZARTE ZERBITZUAK SUSTATZEA, EUSKO JAURLARITZAREN ZUZENENKO ERANTZUKIZUNENKO ESPARRUETAN		2. PROMOVER SERVICIOS SOCIALES DE CALIDAD, EN AQUELLOS ÁMBITOS DE RESPONSABILIDAD DIRECTA DEL GOBIERNO VASCO
1. Kudeaketa-kalitatearen adierazleen katalogo adostua ezartzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari parte hartzen duten eragileek zenbateraino betetzen dituzten aztertzeko ahalbidetuko duena.	1	1. Establecimiento de un catálogo consensuado de indicadores de calidad de la gestión que permitan valorar su grado de cumplimiento por los diversos agentes que intervienen en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.
2. Zaintzaren kalitatea ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko eredu komunak garatzea, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuetan kalitatezko sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak ere.	1	2. Desarrollo de modelos comunes de evaluación y mejora continua de la calidad de la atención, así como de programas de asistencia técnica para la implantación de sistemas de calidad en los servicios del SVSS.
3. Zuzeneko ekintzakotzat jotzen diren zerbitzuen ematea:		3. Prestación de servicios determinados como de acción directa:
Telelaguntza-zerbitzuaren erabiltzaileak.	40.000	Personas usuarias del Servicio de Teleasistencia.
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako telefonoan jasotako deien kopurua.	3.030	Número de llamadas recibidas en el teléfono de atención a mujeres víctimas de violencia de género.
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoetarako aurkeztutako eskabide kopurua.	246	Número de solicitudes presentadas de las ayudas económicas a mujeres víctimas de violencia de género.
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako laguntza ekonomikoaren espediente kopurua.	153	Número de expedientes concedidos de las ayudas económicas a mujeres víctimas de violencia de género.
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretaren arloan gizarte-langileei emandako aholkularitza ekintzen kopurua (kudeaketa integratuaren eremuan).	300	Número de acciones de asesoramiento a trabajadoras y trabajadores sociales en materia de atención a mujeres víctimas de violencia de género (en el marco de la gestión integrada).
Gizarte-langileekin eta Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako sailekin koordinazio-ekintzen kopurua (kudeaketa integratuaren eremuan).	50	Número de acciones de coordinación con las y los trabajadores sociales y con los departamentos del Gobierno Vasco que participan en la atención a mujeres víctimas de violencia de género (en el marco de la gestión integrada).
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretaren arloan Eusko Jaurlaritzako sailen arteko aplikatibo informatiko partekatua (kudeaketa integratuaren eremuan).	1	Aplicativo informático compartido entre departamentos del Gobierno Vasco en materia de atención a mujeres víctimas de violencia de género (en el marco de la gestión integrada).
Ezinduentzako aparkatzeko txartelak.	5.000	Tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA PUBLIKOAREN GARAPENEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILE GUZTIEKIN (ERAKUNDEAK ETA GIZARTE ERAGILEAK) SAREKO LANA BULTZATZEA ETA INDARTZEA</p> <p>Erakunde-harremanak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten erakunde eta entitateekin.</p> <p>1. Diru-laguntzak ematea hirugarren sektoreko erakundeei, pertsona, familia, talde eta komunitateekin esku-hartze sozialeko jarduerak garatzen dituztenak pertsona guztien autonomia eta komunitate-integrazioa babestu eta sustatzeko xedearekin, eta, zehazki, hurrengo gai hauek barne hartu edo lantzen dituztenak: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea, familiaren babesa, haur eta nerabeentzako arreta eta babesa, immigranteen integrazioa eta orokorrean, kultura-artekotasuna, adineko pertsonentzako arreta eta babesa, mendetasun-egoeran eta orokorrean, desgaitasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta eta babesa, eta askatasun eta aniztasun afektibo-sexuala.</p> <p>2. Hirugarren sektoreko erakundeek sustatutako esku-hartze sozialeko proiektu ebaluatua.</p> <p>3. Gizarte-intereseko proiektu jakinetarako diru-laguntzak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren eskumeneko jarduketaren eremuetan sartzen direnak.</p> <p>4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia.</p> <p>5. Informazio Sistema.</p> <p>6. Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra.</p> <p>7. Gizarte-interesekoa izatearen aitortzea lortzeko egindako proposamenen kopurua.</p> <p>8. Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organoaren bilerak.</p> <p>9. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren bilerak.</p> <p>10. Adinduen batzorde sektorialaren bilerak (Adinekoen Kontseilu Sektorial izena izatera igaroko da).</p> <p>11. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren bilerak.</p>	<p>200</p> <p>100</p> <p>6</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>50</p> <p>3</p> <p>4</p> <p>4</p> <p>4</p>	<p>3. PROMOVER Y REFORZAR EL TRABAJO EN RED CON TODOS LOS ACTORES, INSTITUCIONALES Y SOCIALES, QUE INTERVIENEN EN EL DESARROLLO DEL SISTEMA PÚBLICO DE SERVICIOS SOCIALES</p> <p>Relaciones institucionales con las organizaciones y entidades que forman parte del Sistema Vasco de Servicios Sociales.</p> <p>1. Subvención a entidades del tercer sector de actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades, orientadas a la promoción y protección de la autonomía personal e integración comunitaria de todas las personas, en particular, cuando se enmarquen en o refieran a las siguientes materias: los servicios sociales; la inclusión social; la protección de la familia; la atención y protección a la infancia y la adolescencia; la integración de las personas inmigrantes y, en general, la interculturalidad; la atención y protección a las personas mayores; la atención y protección a las personas en situación de dependencia y, en general, de discapacidad; y la libertad y diversidad afectivo-sexual.</p> <p>2. Proyectos de intervención social promovidos por las Entidades del tercer sector evaluados.</p> <p>3. Subvenciones nominativas para proyectos de interés social enmarcados en las áreas de actuación que competen a la Dirección de Servicios Sociales.</p> <p>4. Observatorio Vasco de Servicios Sociales.</p> <p>5. Sistema de Información.</p> <p>6. Registro General de Servicios Sociales.</p> <p>7. Número de propuestas de declaración de interés social.</p> <p>8. Reuniones del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales.</p> <p>9. Reuniones del Consejo Vasco de Servicios Sociales.</p> <p>10. Reuniones de la Comisión Sectorial de Personas Mayores (pasará a denominarse Consejo Sectorial de Personas Mayores).</p> <p>11. Reuniones del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>4. GIZARTE ZERBITZUETAKO KATALOGOKO ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK EMATEKO ESTALDURAK ATZEMANDAKO LAGUNTZA ESKAERETARA EGOKITZEARI DAGOKIONEZ AURRERA EGITEA, BAITA ZERBITZUEN LURRALDE ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ ERE</p>		<p>4. AVANZAR EN LA ADECUACIÓN DE LAS COBERTURAS DE ATENCIÓN DE LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES DEL CATÁLOGO DE SERVICIOS SOCIALES A LAS DEMANDAS DE ATENCIÓN DETECTADAS, ASÍ COMO EN LA ORDENACIÓN TERRITORIAL DE LOS SERVICIOS</p>
<p>1. EAeko Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatzea.</p>	1	<p>1. Aplicación del Mapa de Servicios Sociales de la CAPV.</p>
<p>2. Gizarte Zerbitzuen Mapan zehazturiko biztanle-eremuen arabera, gutxieneko estaldura-mailak eta, beharrezkoa denean, batez besteko gutxieneko intentsitateei buruzko erregelamendua.</p>	1	<p>2. Regulación de las coberturas mínimas y, en su caso, de las intensidades mínimas estándar correspondientes en función de los ámbitos poblacionales establecidos en el Mapa de Servicios Sociales.</p>
<p>5. ZAINZA RATIOAK ETA/EDO ZERBITZUEN INTENSITATEA EGOKITZEA INDARREKO ARAUDIRA EGOKITZEKO</p>		<p>5. ADECUAR LOS RATIOS DE ATENCIÓN Y/O LA INTENSIDAD DE LOS DIVERSOS SERVICIOS PARA SU ADECUACIÓN A LA NORMATIVA VIGENTE</p>
<p>1. Zerbitzuen eta prestazioen baliabide materialak, funtzionalak eta langile-arlokoak ezartzea.</p>	6	<p>1. Establecimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal de los distintos servicios y prestaciones.</p>
<p>6. PRESTAZIOAK LORTZEKO TRESNA KOMUNAK APLIKATZEA, EDO, HALA BADAGOKIO, GARATZEA</p> <p>1. Mendetasuna, babesgabezia eta bazterkeria ez ezik arrisku-egoerak ere balioesteko tresna komunak aplikatzea, prestazioak lortzeko irizpideak betetzeko aukera harmonizatzea ahalbidetzen dutenak.</p>		<p>6. APLICAR O, EN SU CASO, DESARROLLAR LOS INSTRUMENTOS COMUNES DE ACCESO A LAS DIVERSAS PRESTACIONES</p> <p>1. Aplicación de herramientas comunes de valoración de la dependencia, la desprotección y la exclusión, así como de las respectivas situaciones de riesgo, que permitan armonizar el cumplimiento de los criterios de acceso a las diversas prestaciones.</p>
<p>7. GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROEN ERABILERRAZTASUNA HOBETZEN AURRERA EGITEA</p>		<p>7. AVANZAR EN LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DE LOS CENTROS DE SERVICIOS SOCIALES</p>
<p>1. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta gizarte-larrialdietako gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloak ezartzea, Zorroari buruzko Dekretuan ezartzen denaren arabera.</p>		<p>1. Establecer protocolos de coordinación entre los servicios sociales de base y los de urgencias sociales, de acuerdo a lo que se establezca en el Decreto de Cartera.</p>
<p>2. Lehen eta bigarren arreta mailetakako zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko azterketa bat egitea.</p>		<p>2. Realización de un estudio para la mejora de la coordinación entre los niveles de atención primaria y secundaria.</p>
<p>8. GENERO IKUSPEGIA PLANA OSATZEN DUTEN EKINTZA GUZTIETAN SARTZEA, GENERO DESBERDINTASUNAK KENTZEKO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAN</p>		<p>8. INCORPORAR LA PERSPECTIVA DE GÉNERO A TODAS LAS ACCIONES QUE FORMAN PARTE DEL PLAN, AL OBJETO DE ELIMINAR LAS DESIGUALDADES DE GÉNERO Y PROMOVER LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN EL ÁMBITO DE LOS SERVICIOS SOCIALES</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko modulu espezifikoa sartzea zerbitzu sektorialen Plan estrategikoan esparruan garatutako prestakuntza-programetan.</p>	1	<p>1. Introducir módulos específicos sobre igualdad entre mujeres y hombres en los programas formativos desarrollados en el marco del Plan Estratégico de Servicios Sociales.</p>
<p>9. SISTEMAREN GAITASUNA HOBETZEA, GIZARTE ZERBITZUETAKO ERABILTZAILEEI LAGUNTZA SOZIAL PERTSONALIZATUA ETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, BETIERE LAGUNTZA HORREN PREMIA DUENEI</p>		<p>9. MEJORAR LA CAPACIDAD DEL SISTEMA PARA OFRECER A LAS PERSONAS USUARIAS DE LOS SERVICIOS SOCIALES QUE LO PRECISEN UN ACOMPAÑAMIENTO SOCIAL PERSONALIZADO E INTEGRAL DESDE LOS SERVICIOS SOCIALES</p>
<p>1. Esku-hartze komuneke eredu bat egitea Oinarrizko gizarte zerbitzuentzat, funtzionamenduari buruzko oinarrizko jarraibideei buruzko orientazioa ematen duena.</p>	1	<p>1. Elaboración de un modelo de intervención común para los servicios sociales de base que oriente sobre sus pautas básicas de funcionamiento.</p>
<p>10. ZAINZAILEEI EMATEN ZAIEN LAGUNTZA HOBETZEA</p>		<p>10. MEJORAR EL APOYO PRESTADO A LAS PERSONAS CUIDADORAS</p>
<p>1. Profesionalak ez diren zainzaileentzako prestakuntza-ekintzak, Hobetuz erakundearen lankidetzarekin.</p>	10	<p>1. Acciones de formación para cuidadores no profesionales en colaboración con Hobetuz.</p>
<p>11. EKIPAMENDUEN, BEREZIKI EGOITZA IZAERAKO EKIPAMENDUEN, EZAUGARRIAK, DISEINUA ETA KOKAPENA KOMUNITATEAREN IKUSPEGIRA ETA HURBILTASUNAREN, GIZARTE LAGUNTZA PERTSONALIZATUAREN ETA INTEGRALAREN ETA PERTSONAGAN OINARRITUTAKO ZAINZAREN PRINTZIPIORA EGOKITZEN AURRERA EGITEA</p>		<p>11. AVANZAR EN LA ADECUACIÓN DE LAS CARACTERÍSTICAS, EL DISEÑO Y LA UBICACIÓN DE LOS EQUIPAMIENTOS, EN ESPECIAL LOS DE CARÁCTER RESIDENCIAL, AL ENFOQUE COMUNITARIO Y AL PRINCIPIO DE PROXIMIDAD, DE ACOMPAÑAMIENTO SOCIAL PERSONALIZADO E INTEGRAL, Y DE ATENCIÓN CENTRADA EN LA PERSONA</p>
<p>1. Pertsonan oinarritutako arreta-eredua zabaltzea, hala etxeko arretan nola abegi-zentroetan.</p>		<p>1. Difusión del modelo de atención centrado en la persona, tanto en el entorno domiciliario como en centros residenciales.</p>
<p>2. Alojamiento-premiak dituzten pertsonentzat egon litezkeen etxebizitza-baliabide alternatiboei buruzko ikerketa-proiektuak sustatzea.</p>		<p>2. Fomento de proyectos de investigación sobre posibles recursos alternativos de vivienda para personas con necesidades de alojamiento.</p>
<p>12. SISTEMAREN KONPLEXUTASUNA MURRIZTEA, BEREZIKI ERABILTZAILAEN IKUSPEGITIK, ESKAEREN IZAPIDETZE ARINAGOA AHALBIDETUKO DUTEN ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO FORMULAK GARATUZ</p>		<p>12. REDUCIR LA COMPLEJIDAD DEL SISTEMA, ESPECIALMENTE DESDE EL PUNTO DE VISTA DE LAS PERSONAS USUARIAS, DESARROLLANDO FÓRMULAS DE GESTIÓN ADMINISTRATIVA QUE PERMITAN UNA TRAMITACIÓN MÁS ÁGIL DE LAS DEMANDAS</p>
<p>1. Administrazioa arrazionalizatu eta modernizatzeko neurriak hartzea, baita administrazioaren zerbitzuak ekainaren 22ko 11/2007 Legea (herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa) egokitzeko ere.</p>		<p>1. Adopción de medidas de racionalización y modernización administrativa, así como para la adecuación de sus servicios a la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>13. ZERBITZUEN KALITATEA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETU DADIN SUSTATZEA, I+Garen JARDUEREN BITARTEZ ETA JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATUZ KUDEAKETAN ETA ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAN</p> <p>1. Berrikuntza babesteko programa espezifikoak sendotzea gizarte-zerbitzuen esparruan.</p> <p>2. Jardunbide egoki berritzaileak EAeko gizarte zerbitzuetan gara daitezen sustatu eta laguntzea.</p> <p>14. GIZA BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA FAVORATZEA, PRODUKTIBITATEA HOBETZEA ETA LAN BALDINTZA EGOKIAK SUSTATZEA, ZAINZTA KALITATE HANDIAGOZ GAUZATZEA AHALBIDETUZ</p> <p>1. Enplegu eta prestakuntza-sistemekin koordinatuz, gizarte zerbitzuetako profesionalen trebakuntza eta prestakuntza bultzatzea.</p> <p>2. Zaintza-lana ezkutuko ekonomian egiten duten pertsonak profesionalizatzeko politika aktiboak sustatzea.</p> <p>3. Modulu ekonomiko egokiak eta gizarte-klausulak ezartzea zerbitzuak adosteko eta/edo kontratatzeke, egun dauden lan-erregulazioak betetzeko eta zerbitzuak emateko ez ezik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gauzatzeko lan-baldintzak, baldintza profesional eta trebakuntzarako baldintza egokiak ezartzeko ere.</p>		<p>13. PROMOVER LA MEJORA DE LA CALIDAD Y LA EFICIENCIA DE LOS SERVICIOS MEDIANTE LAS ACTIVIDADES DE I+D Y LA POTENCIACIÓN DE LAS BUENAS PRÁCTICAS EN LA GESTIÓN Y LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS</p> <p>1. Reforzar los programas específicos de apoyo a la innovación en el ámbito de los servicios sociales.</p> <p>2. Promover y apoyar el desarrollo de buenas prácticas innovadoras en los servicios sociales de la CAPV.</p> <p>14. FAVORECER EL APROVECHAMIENTO Y MEJORA DE LAS CAPACIDADES DE LAS PERSONAS, LA PRODUCTIVIDAD Y UNAS CONDICIONES LABORALES ADECUADAS, POSIBILITANDO UNA MAYOR CALIDAD DE LA ATENCIÓN</p> <p>1. Promoción, en coordinación con los sistemas empleo y formación, de la cualificación y formación de los profesionales de los servicios sociales.</p> <p>2. Promover políticas activas de profesionalización de las personas prestadoras de cuidados en la economía sumergida.</p> <p>3. Establecimiento de módulos económicos adecuados y cláusulas sociales en los procedimientos de concertación y/o contratación de servicios para el cumplimiento de las regulaciones laborales existentes y la determinación de condiciones laborales, profesionales y de capacitación adecuadas para la prestación de los servicios, así como la igualdad de mujeres y hombres.</p>
<p>15. ZERBITZU MOTA BEREAM DAUDEN GASTU ARRUNT PUBLIKOAREN DIFERENTZIAN ERAGINA DUTEN FAKTOREEI BURUZKO AZTERKETA EGITEA, ETA JUSTIFIKATU GABEKO DIFERENTZIAK MURRIZTEKO AUKERAK IDENTIFIKATZEA</p> <p>1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen kostuari buruzko azterlana egitea aldiari aldiari, identifikatzeko zerbitzu mota berdinean dauden gastu arrunt publikoaren diferentziak eta horietan eragina duten faktoreak.</p>		<p>15. REALIZAR UN ANÁLISIS DE LOS FACTORES QUE INCIDEN EN LAS DIFERENCIAS EN GASTO CORRIENTE PUBLICO EN UN MISMO TIPO DE SERVICIO E IDENTIFICAR ALTERNATIVAS PARA REDUCIR LAS DIFERENCIAS NO JUSTIFICADAS</p> <p>1. Elaboración de un estudio de costes de las diferentes prestaciones y servicios del SVSS, de carácter periódico, que permita identificar las diferencias existentes en el gasto corriente público en un mismo tipo de servicio y los factores que inciden en las mismas.</p>
<p>16. GIZARTE LARRIALDIKO EGOEREI ARRETA ESKAINTZEA</p> <p>1. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL/AES) bizikidetz-unitate onuradunak.</p>	26.000	<p>16. ATENDER A SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL</p> <p>1. Unidades de convivencia beneficiarias de Ayudas de Emergencia Social (AES).</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL/AES) onuradunak.	45.000	2. Personas beneficiarias de Ayudas de Emergencia Social (AES).
17. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA GARATZEKO BEHARREZKOAK DIREN BARNE EGITURAK FINKATZEA		17. AFIANZAR LAS ESTRUCTURAS INTERNAS NECESARIAS PARA EL DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES
1. Gizarte-zerbitzuen eremuan teknikariak eta/edo administrazio-langileak kontratatuz eta gizarteratza eta ongizate eta parte-hartze sozialera bideratutako laguntzak.	100	1. Ayudas para la contratación de personal técnico y/o administrativo dirigidas a la inclusión, el bienestar y la participación social en el ámbito de los servicios sociales.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia sustatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Ikuspegi@k sarea eratzen duten beste Behatokiekin koordinatuz, bai eta lurralde historikoetan dauden beste Gizarte Behatokiekin ere.	1	2. Impulso del Observatorio Vasco de Servicios Sociales en coordinación con el resto de los observatorios que conforman la red Ikuspegi@k del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, y con los observatorios sociales existentes en los territorios históricos.
3. Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren hedatze-prozesuaren jarraitzea.	1	3. Continuación del proceso de despliegue del Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales.
18. HERRITARREK, ETA BEREZIKI, ERABILTZAILEEK GIZARTE ZERBITZUEN POLITIKEN GARAPENEAN PARTE HARTZEKO BIDEAK HEDATZEA, ETA ERABILTZAILEEK PROTAGONISMO MAILA HANDIAGOAK LORTZEA GIZARTE ZERBITZUEN POLITIKEI DAGOKIENEZ EZ EZIK BALIABIDEAK SORTZEARI ETA HORIEN FUNTZIONAMENDUARI DAGOKIONEZ ERE		18. EXTENDER LOS CANALES PARA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y, EN ESPECIAL, DE LAS PERSONAS USUARIAS EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS DE SERVICIOS SOCIALES Y ALCANZAR MAYORES COTAS DE PROTAGONISMO DE LAS PERSONAS USUARIAS NO SÓLO EN LAS POLÍTICAS DE SERVICIOS SOCIALES, SINO EN LA CONCEPCIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LOS RECURSOS
1. Batzorde sektorialen sortzea/edo sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren baitan.	1	1. Creación y/o impulso de las comisiones sectoriales en el seno del Consejo Vasco de Servicios Sociales.
19. HERRITARREK GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN INGURUAN DUTEN EZAGUTZA HOBETZEA		19. MEJORAR EL GRADO DE CONOCIMIENTO DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES POR PARTE DE LA POBLACIÓN
1. Aldian-aldian komunikazio-kanpaina egitea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema herritarrei ezagutarazteko.	1	1. Campaña de comunicación periódica para dar a conocer el SVSS a la ciudadanía.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu guztientzat sinbolo edo anagrama bereizgarri bat ezartzea, sistemaren barruan zein kanpo, bertakoak direla adieraziko duena.	1	2. Establecimiento de un símbolo o anagrama distintivo, común a todos los servicios del SVSS, que permita visibilizar, interna y externamente, su pertenencia al mismo sistema.
20. GUNE SOZIOSANITARIOAREN ERAIKUNTZA AMAITZEA ETA GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA		20. CULMINAR LA CONSTRUCCIÓN DEL ESPACIO SOCIOSANITARIO Y MEJORAR LA COORDINACIÓN ENTRE LOS SERVICIOS SOCIALES Y LOS DE SALUD

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. Koordinazio soziosanitarioko programa pilotuak garatzea, bereziki kontuan hartuta etxeko esku-hartze programa soziosanitarioak abian jartzea.</p> <p>2. Lankidetzaz soziosanitarioko tresna eta protokolo bateratuak egitea.</p> <p>3. Arreta soziosanitarioko lurralde-koordinatzailearen figura eta arreta soziosanitarioko lurralde kontseiluaren garapena sustatzea.</p>	1	<p>1. Desarrollo de programas piloto de coordinación sociosanitaria, con particular atención a la puesta en marcha de programas sociosanitarios de intervención a domicilio.</p> <p>2. Elaborar instrumentos y protocolos conjuntos de colaboración sociosanitaria.</p> <p>3. Impulso de la figura de coordinador o coordinadora territorial de atención socio-sanitaria y del desarrollo de los consejos territoriales de atención socio-sanitaria.</p>
<p>21. ENPLEGU ZERBITZUEKIN EGITEN DEN SARE LANA HOBETZEA</p> <p>1. Enplegu Zerbitzuaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzaz gauzatzeko bide iraunkorrak ezartzea diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonak, batez ere gizarte-arloko problematika dutenak, zaintzeko; eta komunitate-garapeneraren, gizarteratzearen eta ekonomia solidarioaren alorrean ibilbidea duten hirugarren gizarte-sektoreko erakundeekin elkarlanean jardunda bereziki.</p>		<p>21. MEJORAR EL TRABAJO EN RED CON LOS SERVICIOS DE EMPLEO</p> <p>1. Establecimiento de cauces permanentes de coordinación y colaboración entre el Servicio de Empleo y los servicios sociales de base para la atención a las personas perceptoras de prestaciones de garantía de ingresos que presentan una problemática eminentemente social, con especial colaboración con las entidades del tercer sector social con trayectoria en el desarrollo comunitario, la inclusión social y la economía solidaria.</p>
<p>22. GENERO INDARKERIARI BURUZKO SARE LANA AURRERATZEA</p> <p>1. Erakundearen arteko koordinazio eta lankidetzarako ekitaldietan parte hartzea.</p>	25	<p>22. AVANZAR EN EL TRABAJO EN RED EN MATERIA DE VIOLENCIA DE GÉNERO</p> <p>1. Participación en acciones de coordinación y cooperación institucional.</p>
<p>23. BESTE SISTEMA BATZUEKIKO (JUSTIZIA, ETXEBIZITZA, GARRAIOA, ETA ABAR) KOORDINAZIOA HOBETZEA, GIZARTE ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZTEN KOLEKTIBOEN PREMIEN ZEHARKAKOTASUNA HANDIA DELAKO</p> <p>1. Gainerako sistemak eta politikak inplikatzea alderdi guztietan tradizionalki gizarte zerbitzuek arreta emandako kolektiboek eman beharreko arretan.</p>		<p>23. MEJORAR LA COORDINACIÓN CON OTROS SISTEMAS (JUSTICIA, VIVIENDA, TRANSPORTE...) DADA LA TRANSVERSALIDAD DE LAS NECESIDADES DE LOS COLECTIVOS ATENDIDOS POR LOS SERVICIOS SOCIALES</p> <p>1. Implicar al resto de sistemas y políticas en la atención a los colectivos que tradicionalmente han sido atendidos en todos los aspectos desde los servicios sociales.</p>
<p>24. AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEARI ETA MENDEASUN EGOERAN DAUDENEN ARRETARI BURUZKO LEGEAREN ESPARRUAN KOORDINAZIOA HOBETZEA</p> <p>1. Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legearen aplikazioa koordinatzeko bileren kopurua.</p>	8	<p>24. MEJORAR LA COORDINACIÓN EN EL ÁMBITO DE LA LEY DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA</p> <p>1. Número de reuniones de coordinación de la aplicación de la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>25. ARAU ESPARRUA ZEHAZTEA, IRABAZI ASMOA DUTEN ETA IRABAZI ASMORIK EZ DUTEN ERAKUNDE PRIBATUEK ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK EMATEKO</p> <p>1. 12/2008 Legean azaltzen den kontzertu-araubidea ez ezik Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 60. artikuluan biltzen diren gainerako tresna arautzaileak ere arautzea.</p> <p>2. Gizarte-klausulen katalogo bat egitea zerbitzuak emateko kontratuak irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeei esleitzeko eraginkortasun-, kalitate- eta kostu-baldintza berdinetan, betiere zerbitzuen eta taldeen egonkortasuna iraupeneko gehieneko epeetan bermatuz, Administrazio bakoitzaren araudiaren arabera.</p>	<p>1</p> <p>1</p>	<p>25. DEFINIR EL MARCO REGULADOR PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE RESPONSABILIDAD PÚBLICA POR PARTE DE LAS ENTIDADES PRIVADAS CON Y SIN FIN DE LUCRO</p> <p>1. Regulación del régimen de concierto contemplado en la Ley 12/2008, así como del resto de los instrumentos reguladores recogidos en el artículo 60 de la Ley de Servicios Sociales.</p> <p>2. Establecimiento de cláusulas sociales en los procedimientos de concertación, contratación o formalización de convenios, para garantizar el cumplimiento de las regulaciones laborales y de condiciones adecuadas para la prestación de los servicios (cualificación de las y los profesionales), igualdad de mujeres y hombres, etc.</p>

PROGRAMA
3124 FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA
ARDURADUNA
04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK
FAMILIA POLITIKARAKO ETA KOMUNITATE
GARAPENERAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA
3124 POLÍTICA FAMILIAR Y COMUNITARIA
RESPONSABLE
04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
DIRECTOR DE POLÍTICA FAMILIAR Y DESARROLLO
COMUNITARIO

MEMORIA

